

1. SARRERA

Lan honen helburua aldaketa soziala, soziologi mailan, aztertzerako garaian jakin beharreko oinarrizko kontzeptuak azaltzea da. Horrela, bigarren puntuan, aldaketa sozialaren definizioa eta oinarrizko ideiak azalduko dira, bilakaera historiko bat aipatzeaz gain.

Bigarren puntuari dagokionez, bertan aldaketa sozialaren azterketarako funtsezko kontzeptuak azaltzen dira, garrantzia berezia emanez krisia, gertaera eta kontinuitatea bezalako kontzeptuei eta, honekin batera, Marx eta Weber soziologoek oinarrizko planteamenduak azalduz.

Laugarren atalean, azkenik, aldaketa sozialaren azterketan Soziologiaren bilakaeran garrantzitsuenak modelo inportanteenak azaltzen dira, ikuspuntu eta azterketa desberdinak ulertzeko garrantzitsuak baitira.

2. ALDAKETA SOZIALA

Aldaketa sozialaz ari garenean, oso kontzeptu zabal eta nahasgarria izan daitekeenez, gizartea egituratzen duten instituzio sozialez ari garela zehaztu beharra dago. Aldaketa soziala, beraz, elkarbizitzaren funtsezko instituzio sozialen eraldaketa da.

Instituzio sozialek ohitura eta arau sistema bat osatzen dute, zeinek rol eta egintza banaketaren bidez, jokabide arautu bat ezartzen baitute gizartean. Horrela, instituzio sozialak (eta, hortaz, aldaketa soziala aztertzerakoan behatu beharrekoak) ondokoak ditugu:

Familia, bizitokia, osasuna, hezkuntza, erlijioa, ekonomia, antolaketa politikoa, mailaketa sozioekonomikoa, ezagutza eta zientziak, komunikabideak.

Aurrekoa hobeto aztertzeko, har dezagun instituzioetako bat adibide gisa. Familia, esaterako. Orain dela hiru mende (instituzio honetan aldaketa sakonenak azken hamarkadetatik hona soilik eman badira ere) familia eredu jakina zegoen indarrean: aita buru ahalguztiduna, emazte eta seme-alabekin, aitona-amonak ere etxean, etab... Jokabide araututik kanpo ateratzen zena –ama ezkongabea, adibidez– zigor soziala pairatuko luke: murmurazioak, mesfidantza... eta agian zigor gogorragoak ere: sorgina kontsideratua izan liteke, Eliza katolikoaren jazarpena pairatu, Inkisizioaren hatzaparretan erori... Korrante nagusitik ateratzea, beraz, oso zaila da. Norbanakoek zigortu egien dute jokabide araututik ateratzen dena; finean, norbanakoak arauaren kontrolatzaileak bihurtzen dira.

2.2. Soziologiaren hastapenetatik gizarte post-modernora

Soziologiaren jaiotzak harreman handia du aldaketa sozialarekin. Gizarte zientzia hau aldaketa handiak ematen ari ziren garaian jaio zen, XVI. mendean. Hau da, Erdi Aroko gizarte aurre-moderno edo feudalaren zutabeak ahultzen hasi ziren garaian, gizarte modernoa edo industrialala ekarriko zuen prozesuari hasiera emanez. Hau dela-

eta, gizartea aztertu zuten lehen pentsalarien ardura nagusia (Saint Simon, Comte...) gizarte zaharretik berrirako prozesu hori azaltzea eta ulertzea izan zen.

Aldaketa prozesu horrek XIX eta XX. mendeetan ezagutu zuen bere puntu gorena. Gizarte modernoan ondokoak ditugu ezaugarririk garrantzitsuenak:

Kapitalismo industrial, Estatu eta burokrazia, razionalizazioa eta Zientzia, hiria eta urbanizazioa, indibidualismoa, eta sekularizazioa.

Gaur egun ere aldaketa sakonak ezagutzen ditugu gure gizarteak. Zenbait autorek gizarte modernotik gizarte post-modernorako jauzia eman dela baieztatzen dute. Puntu honetan, hala ere, ez dago adostasunik; baina instituzio sozialetan funtsezko aldaketa ugari dugula agerikoa da:

Familia eredu berriak, ekonomi globalizazioa, soziabilitate modu berriak, hirien hedapena, mundu mailako erakundeak eta kulturaren homogenizazioa.

Familia eredu berriak aipatuz, Estatu Batuetan, ustez gizarte post-moderno horren eredu denak, *elkarrekin bizi gabeko bikotea* deitutako fenomeno ezagutzen da, senitarte eredu berrien adierazlerik estremoena izan daitekeelarik. Eredu honen arabera, bi pertsonak bikotea osatzen dute bakoitzak bere etxea, ondasunak... edukiz, agian geografikoki bata bestetik oso urrun biziz (bata Washingtonen bestea Parisen). Eredu hau, bistan denez, maila ekonomiko oso altuko pertsonentzat erreserbatu dago.

Bestalde, aldaketa soziala gero eta azkarragoa da. Gizarte tradizionalak (aurre-modernoak) mendeak tinko iraun zituen bitartean, bi menderen buruan gizarte modernoaren agortzeaz eta gizarte post-modernoaz ari dira zenbait autore. Aldaketak gero eta azkarrago gertatzen dira bata bestearen atzean. Kontu honetan, hala ere, eremu geografikoaren araberrako desberdintasun erraldoiak aipatu behar dira. Munduko zatirik handiengan, eredu tradizionala gailentzen da oraindik. Familiaren kontuan, adibidez, aipatutako eredu ultra-moderno hori oso urria da (Mendebaldeko eta, batez ere, AEBetako elite batean), eredu moderno Mendebaldean gailentzen da batez ere, eta eredu aurre-moderno jaun eta jabe da gainontzeko lurraldeetan (mundu islamiarra, gainontzeko Afrika eta Asiaren gehiengoa...).

3. KONTZEPTU GARRANTZITSUENAK

Aldaketa soziala aztertzerakoan, zenbait kontzeptu funtsezkoak dira. Horietariko batzuk nahasgarriak suertatu daitezke, bizi arruntean beste esanahi batez erabili ohi baitira. Puntu honetan zehar, beraz, aldaketa soziala azaltzeko funtsezkoak diren kontzeptu nagusiak azaltzen saiatuko gara Nisbet-en idatzian oinarrituz¹.

3.2. Krisia, gertaera eta aldaketa

Krisia

Gizakiak zein taldeak jokabide berarekin jarraitzeko duen ezintasunak sortutako gizakia eta ingurunearen arteko harremana da krisia. Harreman mota bat, beraz.

Krisiak gizakiaren joeraren haustura suposatzen du. Hots, gizakiak berez kontserbadoreak gara, aldaketari beldurra diogu, eta krisiak egoera honekiko apurketa suposatzen du. Nisbetek horrela dio:

“...es auténticamente cierto de cualquier organización social o pauta de comportamiento social: su tendencia a persistir, a mantener tenazmente los antiguos modos de comportamiento mientras sea posible a través de procesos de socialización profundamente enraizados y mediante la adherencia a las normas, los roles acostumbrados, los status y los sistemas de autoridad.”²

Horrela, nahiz eta aldaketa beharrezkoa izan, gizakiak *fikzioak* sortzen ditu, hau da, bere burua aldaketaren aurka justifikatzeko gizakiak berak sortzen duen mekanismoa. Hau guztiz logikoa da gizakiaren izaera kontuan hartuta: gizakiaren konportatzeko modua ikasia da, sozializazio prozesuen bidez. Beraz, gizakia ohitura eta habitu batzuk jarraitzeko (bizitza jakin eta definitu bat aurrera eramateko) hezia, sozializatua dago, ez guztia zalantzan jartzeko. Honen bidez, gizakiak *kontrola* lortzen du, lasai sentitzen da. Neurri handi batean, Nisbeten aburuz, izaera honek pentsamendu propio edo kontzientea zaildu egiten dio gizakiari; pentsamendu kontzienteak guztia

¹ NISBET, R.A., *Naturaleza y fuentes del cambio social*

² *Ibidem*, 93. or.

zalantzan jartzea suposatuko bailuke eta, ikusi bezala, gizakiaren izaerak kontrakoa bultzatzen du.

Kontrolaren galera ematen denean arreta pizten da. *Arreta* edo *atentzioa* gizakiak munduari buruz –bere buruaz harago dagoenari buruz– kontzientzia hartzearen jarrera mentala da. Arreta, beraz, krisiarekin ematen da eta paper garrantzitsua betetzen du ohiturak atzeraturik gelditzen direnean (bere funtzioa egoera berriari egokitutako ohitura berriak eraikitzea izango da).

Krisiaren kontzeptuarekin jarraituz, krisien kausak ugariak direla aipatu beharra dago. Baina garrantzitsuena, lan honetarako, krisi eta aldaketa kontzeptuen arteko erlazioa da. Krisi garaietan gizabanako edota elite batzuk indarra hartu eta gizarte antolaketaren puntu altuenera iristen dira; hots, gizatalde txikiak soilik dira gai krisi garaietan gizartearen norabidea zuzentzeko (arrazoi ezezagun batzuen eraginez, dela karisma, dela gaitasun bereziren bat...). Hau Historia aztertuz frogatzen bada ere, ez da zuzena aldaketaren iturburu bakartzat pertsona edo elite berezi hori hartzea. Hala ere, gizarte batek pertsona zein elite prestatuak izatea faktore garrantzitsua da krisi egoerei aurre egiteko garaian. Finean, aldaketa sozialaren prozesuan eraginkorrak suertatu daitezten, pertsona *berezi* horiek zein elite antolatuek baldintza jakin batzuk behar dituzte; eta baldintza garrantzitsuenetakoa krisia da.

Gertaera

Gertaera kasu zehatz bat da; eta leku nahiz une jakin batean ematen da. Gertaera bat ez da gizartearen egituratik eratortzen, ez du sorburu estrukturalik. Beraz, gizarte baldintzak aztertuz gertaera bat aurreikustea ezinezkoa da; ez dago kausa-ondorio harremanik.

Kontzeptu hau askotan aldaketarekin nahasi izan da, baina bi ideia desberdin dira, nahiz eta, aldi berean, erlazionatuak dauden. Soziologian tradizionalki bi kontzeptu hauen azterketa bereizi egin da, baina historikoki ugaritan batera ematen diren fenomenoak dira. Nisbetek ondoko adibidea ematen du: ingelesek XVIII. mendean India inbaditzea gertaera bat izan zen, baina aldaketa sozial sakonak ekarri zituen

Indiako gizarte egituraren oinarri ziren kasten sistemaren baitan. Gertaerak, hortaz, aldaketa soziala eragin dezake.

Honek, noski, ez du esan nahi aldaketa sozialak nahita nahiez gertaera behar duenik pizgarri bezala. Baina historikoki frogatzen da gizarte baten isolamenduak aldaketa zaildu egiten duela. Era berean, gizarte baten isolamendua hausten denean, aldaketa sozialak areagotu egiten dira. Beraz, isolamenduaren haustura hau gertaera bat ere bada, eta argi gelditzen da funtsezkoa dela gertaerak ere aztertzea aldaketa soziala ulertu ahal izateko.

Finean, ondokoa azpimarratu nahi da: aldaketa sozialaren azterketan gertaerak funtsezko aztergaia dira; aldaketa estrukturalak sortzen dituzten gertaera puntualak, hain zuzen, krisi garaietan ematen direnak. Gakoa, gertaera berezi eta urri hauek eta gainontzekoak –bizitza gertaeraz josita baitago– desberdintzean datza.

3.3. Marx eta Weberren planteamenduak

Marx eta Weber soziologoek aldaketa sozialari buruz egindako planteamenduak asko sinplifikatuz, honako ideiak azpimarratu behar ditugu:

Marxek –Engelsekin batera askotan– aldaketa sozialaren jatorria aurreko egituraren jarri zuen. Hau da, Marxen aburuz gizarte bateko klase aszendentek zekarren aldaketa; aldaketaren kimua gizarte zaharrean aurkitzen zen, beraz. Adibidez, gizarte kapitalistan burgesia eta proletargoaren arteko borrokan, polarizazioa emango zen, erdian kokatzen ziren beste klase sozialak proletargoarekin bat egingo zutelarik. Klase zapaldua edo aszendentea zen proletargoak burgesia gaitutuko zuen (depauperizazioaren eraginez klaseen arteko kontraesanak handituz joango lirateke-eta); eta proletargoak produkzio bitartekoen jabetza eskuratuko luke gizarte berria, gizarte komunista eraikiz. Beraz, planteamendu honen arabera, aldaketa sozialaren sorburua aldaketa ezagutu aurreko gizartean aurkitzen da. Berdin gertatzen zen kapitalismoarekin. Marxen azterketa jarraituz, feudalismoan burgesia –klase sozial zapaldu aszendentea– eta klase zapaltzailearen arteko gatazkaren eraginez, burgesia gailentzerakoan sortu zen kapitalismoa. Irakurketa hau, beraz, nahiko lineala da eta Historia osoaren funtzionamendua planteamendu horretan islatzen da.

Weberrek, bere aldetik, oso bestelako azterketa burutu zuen. Kapitalismoaren sorrera aztertzerakoan, adibidez, hau posible egin zuten baldintzak aztertu egin zituen *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*³ idazlanean. Weberren aburuz funtsezkoa zen gizakien balioen baitan eman ziren aldaketak ezagutzea kapitalismoaren sorrera ulertzeko. Ildo honetan, protestantismoa –eta honen barnean bereziki puritanismoa– determinanteak izan ziren kapitalismoa bultzatu zuten balio horien sorreran. Weberrek, hortaz, sistema ekonomikotik at zegoen *gertaera* bat azpimarratu zuen. Aldaketa ez da etortzen egituratik bertatik (Marxek zioen bezala), baizik eta gertaera eta krisi kontzeptuak izan behar dira kontuan. Horrela adierazi dezakegu ideia hau:

Gertaera jakin batzuk → Krisia → Aldaketa soziala

3.4. Kontinuitatea

Aldaketa sozialaren azterketan erabili ohi den beste kontzeptu bat kontinuitatea edo jarraikortasuna da, Marxen zein Weberren aurreko planteamenduekin harreman estua duen gaia. Aldaketa jarraikortasunarekin erlazionatu da, halako hazkunde bat suposatuko balu bezala (Marxek, aipatu bezala, horrela egiten du). Beraz, kontinuitatearen ideia hau ontzat hartuz gero, aldaketa beste aldaketa batetik datorren serie moduko prozesua dela esaten ari gara.

Nisbeten arabera, aldiz, azterketa historiko sakon bat burutu ondoren, argi gelditzen da aldaketa sozialak ez duela jarraikortasunik erakusten, diskontinuitatea baizik. Aldaketa soziala ez da *continuum* bat, aldaketen arteko harremana kronologikoa baita, ez genetikoa. Durkheimen hitzetan, “*el estado anterior no produce el ulterior, porque la relación entre ellos es exclusivamente cronológica*”⁴.

Azterketa honen azpian ezkutatzen den ideia honakoa da: sistema soziala ezin da organismo biologiko baten antzera aztertu. Gizarte errealitatea osotasun konplexua da. Honek, hala ere, ez du esan nahi ezin denik aldaketa soziala enpirikoki aztertu, baizik eta ezin dugula aldaketaren iturburua aurreko egoera batean bilatu.

³ WEBER, Max, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donostia 1996.

⁴ Emile Durkheim, Nisbeten *Naturaleza y fuentes del cambio social* idazlanean aipatua, 96. or.

4. PROZESU SOZIALEN AZTERKETARAKO MODELO DESBERDINAK

Errealitate soziala eta, ondorioz, aldaketa soziala aztertzerako garaian Soziologian irizpide desberdinak daudela kontuan izan behar dugu. Jarraian, laburturik modelo desberdinak azalduko dira:

a) Lehena **modelo organikoa** dugu, Soziologia klasikoan jaun eta jabe zen ikuskera. Bertan ditugu Comte, Spencer, etab. Ideia nagusia gizartea eta organismo biologiko baten arteko parekatzea zen. Hau da, Soziologia zientzia naturalen mailara berdindu asmoz-edo, gizartearen azterketa organismo baten azterketarekin parekatu zen. Horrela, gizarteak funtzionamendu egonkor bat zuen eta soziologoaren betebeharra funtzionamendu objektibo hori deskubritzea zen.

b) Bigarrena **modelo sistemikoa** zen, zeinak aurrekoaren funtsezko kontzeptuak jarraitzen zituen, zenbait berrikuntza aportatuz. Ikuskera honetan kokatu ditzakegu, besteak beste, Parsons, Macionis, Persell, Ritzer... Sistemaren modeloak gizartea sistema batekin parekatzen du: sistema txikiagoz osatutako sistema bat. Horrela, aldaketa soziala *sistema sozialaren baitan gertatutako aldaketa* bezala definituko dute. Autore desberdinek eginiko definizio desberdinek, hala ere, egituraren garrantzia azpimarratuko dute. Modelo sistemikoak, era berean, ondoko aldaketa ereduak desberdintzen ditu:

- | | |
|------------------------|--|
| 1. Osagaien aldaketa | 4. Mugen aldaketa |
| 2. Egituraren aldaketa | 5. Azpi-sistemen arteko erlazio aldaketa |
| 3. Funtzioen aldaketa | 6. Ingurunearen aldaketa |

Honekin batera, maila orokorrago batean, bi aldaketa mota bereizten dituzte: Zatietan –azpisistemetan– ematen direnak eta sistemaren aspektu guztietan eragina dutenak. Eta aldaketa soziala maila desberdinetan eman daitekeela azalduko dute: makro-aldaketa, aldaketa ertaina eta mikro-aldaketa; eragiten duten sistemen mailaren arabera.

c) Beste modelo bat **aldaketen konjuntuei** erreferentzia egiten diena da (Sorokin, Spengler...). Ikuskera honen arabera, prozesu soziala elkarren artean erlazionatutako aldaketen sekuentzia da. Horrela, aldaketak anitzak izango dira, sistema berari erlazionatuak egongo dira eta beraien artean harreman kausala izango dute. Horrela, modelo honek defendatzen duen ideia garapenarekin –progresoarekin– erlazionatua dago. Beraz, kontzeptu hau norbatiboa izanik (errealitate soziala nolakoa izan beharko lukeen aztertzer pasatzen baita), azterketa enpirikotik kanpo gelditzen da.

d) Azkenekoa **arlo sozial dinamikoa** deiturikoa dugu, gainontzekoekin konparatuz haustura bat suposatzen duena. Hemen aipatu beharreko autoreak Whitehead, Toynbee, Giddens, etab. ditugu. Modelo honen arabera, funtsezko ideia gizartea aldakorra dela aitortzean datza; ezinezkoa da organismo hil baten antzera aztertu. Horrela, errealitate soziala guztiz dinamikoa da; gizartea ezin da objektu bat balitz bezala aztertu. Modelo honek, era berean, gertaerari garrantzi handia ematen dio, errealitate sozialaren egoera momentaneo bezala ulertuz.

5. BIBLIOGRAFIA

NISBET, R.A., *Introducción a la Sociología. El vínculo social*, “Naturaleza y fuentes del cambio social”.

SZTOMPKA, P., *Sociología del cambio social*, “Conceptos fundamentales en el estudio del cambio”.

WEBER, Max, *Etika protestantea eta kapitalismoaren izpiritua*, Gaiak, Donostia 1996.

Irakasgaiko apunteak.